



**Arartekoaren 2019R-1262-17 Ebazpena, 2019ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Galdakaoko Udalari gomendatzen zaio beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzala "skate" pistaren erabilera legeztatzeko eta dagozkion kalitate akustikoko mailak betetzen dituela ziurtatzeko.**

### Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan. Horren bidez, Galdakaoko Udalaren jardunarekin ados ez zegoela adierazi zuen; izan ere, Zuazo inguruan skate-pista bat jarri dute inguruko beren etxebizitzekiko gutxieneko distantziak errespetatu gabe eta zaratengatik eragozpen handiak sortzen dituzte.

Kexagileak aipatu duenez, instalazio berritik 2 eta 10 metro arteko distantziara dauden hamar etxebizitzari eragiten die. Beren etxebizitzekiko distantzia hori ez dela legezkoa uste du, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2012ko urriaren 3an emandako epaiaren arabera, hain zuzen, Galdakaoko Udala auzitara eraman zuten prozedura batean; bertan, udalerriko eraikuntza edo instalazio orok beste lursail batzuekiko errespetatu beharreko gutxieneko distantziak epaitu ziren.

Bestalde, bizilagun horien ustez, egoiliarrei zaratek eragindako eragozpenak murrizteko neurririk ez du hartu udalak, nahiz eta jakin bazekien era honetako instalazioak jartzeak zer arazo eragin zezakeen, aurrez beste leku batzuetatik beste bi pista kendu behar izan baitzituzten sortzen zituzten eragozpenengatik.

Udalak ez dio erantzun instalazioa etxebizitzetatik urruntzea eta etxebizitzarik ez dagoen lursailaren beste aldean jartzeko eskaerari, eta hau bakarrik erantzun die: *"El alumbrado de esta zona está programado para que no se haga uso de estas instalaciones en horarios que puedan molestar a los vecinos y vecinas"*. Eragindako erkidegoen aburuz, neurri horrek ez du arazo larri hori konpontzen.

2. Arartekoak, behin kexaren xedea aztertuta, informazioa eskatu zion Galdakaoko Udalari eta dokumentazio hau emateko eskatu:
  - Udal plangintzari buruzko eta beste lursailen mugekiko eraikuntzek nahiz instalazioek bete beharreko gutxieneko distantzietan buruzko txosten teknikoak.
  - Skate-pista eta lursail partikularraren artean benetan dagoen distantziari buruzko planoak, behar bezala mugatuta.
  - Instalaziotik hurbilen dagoen etxebizitzan egindako kutsadura akustikoko neurketak.



3. Galdakaoko Udalak gure eskaerari erantzun zion bertako arkitektoak 2017ko uztailaren 4an egindako txostena aurkeztuz, bai eta trenbiderako sistema orokorraren hirigintzako fitxa aurkeztuz ere.

Halaber, instalazioak funtzionamenduan sortutako zarata egiaztatzeari buruzko txostena igorri zuen udalak.

4. Udaleko arkitektoak egindako txostena aintzat hartuta, Arartekoak udalari haren edukiari buruzko zenbait gogoeta helarazi zizkion, emandako informazioa zabaltzeko eskatu zuen eta, berariaz, zarata mailaren ebaluazioari lotuta.
5. Galdakaoko Udalak bigarren informazio eskaera horri erantzun zion udaleko arkitektoak 2018ko otsailaren 19an egindako txostena aurkeztuz, bai eta baimendutako kontrol erakunde batek neurketa akustiko bat egiteko proposamena ere, helburu horretarako zehazten diren puntuetan soinua hartzeko pistan neurketa bat egin ahal izateko. Proposamen hori aurrekontua esleitzeko zain zegoen onartzeko.
6. Azkenik, zenbait kudeaketa eta dagokion eskaera idatziz egin ondoren, Galdakaoko Udalak, 2019ko otsailaren 19an, 2018ko abenduan egindako txosten hau igorri zuen: "Zuazoko skate-pistak hurbileko etxebizitzetan sortutako zarata mailei buruzko ebaluazioa".

### Gogoetak

1. Hiri-antolamenduko plan orokorrak (HAPO) zehazten du skate-pista dagoen eremua hiri-lurzoruari atxikitako sistema orokor gisa sailkatzen dela, ekipamenduak eta zerbitzuak kalifikazioarekin, erabilera berezi orokorra. Udaleko arkitektoaren 2017ko uztailaren 4ko txostenak honako hau dio: *"Aunque el uso implantado en la zona es evidentemente equipamental, con vocación de servicio a la comunidad, la finalidad del PGOU era hacer un aparcamiento cercano a la red ferroviaria que une Galdakao con Bilbao actualmente."*. Txostenean ere jasotzen denez, FFVVri lotutako aparkaleku publikoaren aurreikusitako hirigintza-helburua ezin da bete.

Aurkeztutako hirigintzako fitxan honako hau zehazten da Zuazoko (SGFE-ZU-1) hiri-lurzoruan trenbiderako sistema orokorreko baldintza berezi gisa: etorkizuneko trenbidea, bertako sarbideak eta aparkalekuak eraikitzeo beharrezko lurzorua dela. Geltokia eraikitzeo azalera ez da 1.200 m<sup>2</sup> baino gehiago izango.

Arartekoak gai horri buruz gehiago zehazteko eskatu zuen, ematen zaion erabilera ez baita HAPOn ezartzen dena. Udaleko arkitektoaren 2018ko otsailaren 19ko txostenak hau zioen:

*“Que el señalado PGOU, prevé el suelo sobre el que se ubica la pista de skate como un SG Ferroviario. La idea primigenia era acercar la estación a la población creando un espacio de aparcamiento de vehículos. Este uso, claramente más perjudicial desde el punto de vista acústico, admite como complementario dotaciones al aire libre como la que nos ocupa, por lo que entiendo que el uso actual en absoluto vulnera el previsto por el Plan...”*

Gune horretarako HAPOn tren geltoki bat, sarbideak eta ibilgailuen aparkaleku bat jasotzen ziren, hau da, hirigintzako arauen 6.14.1 artikulua definizioaren arabera, erabilera eskusiboko eraikin bat altxatzeaz ari gara, orubearen zati bat okupatuz eta mugakide guztiek atzeraemanda.

Ondorio horietarako, sistema orokor hori **azpiegituren** barnean sartzen da sarean era guztietako zerbitzuak emateko, esaterako: ibilgailuen aparkalekuak eta ematen zaien erabileren eraikuntza nahiz eraikin mota guztiak (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 54.2.c artikulua). Aitzitik, sistema orokorren sare horren beraren barnean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak titulartasun publikoko **ekipamendu kolektibo** gisa definitzen ditu, esate baterako, kirol-erabilerako direnak -artikulu beraren c) apartatua-.

Plangintzako Araudiaren 25.1.b) artikulua (2159/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa) **komunikazioen** sistema orokorra sartzen du HAPOn zehaztu beharreko lurralde antolamenduaren egitura orokor eta organikoaren oinarritzko elementu gisa; haren barnean daude, besteak beste: trenbide sareak ezartzeko beharrezkoak diren lurzoru-erreserbak, bertara sartzeko eremuak, eta sistema horri lotutako beste instalazio guztiak, tren geltokiak, adibidez. Aldiz, **espazio libreen** sistema orokorrean sartzen ditu, kultura eta jolas aisialdiari lotutako eremu publikoak, kirol parkeak, esaterako.

Beraz, kirol erabilerak (edo espazio libreen sistema orokorra Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen aurreko araudian) eta azpiegiturakoak (edo komunikazioen sistema orokorra Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen aurreko araudian) erabilera ezberdinak dira, eta lege mandatu bidez, nahitaez, berariaz zehaztu behar dira hirigintza garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia bermatze aldera; hala, erabilera kolektiboko espazioen kalitatea eta funtzionalitatea bermatuko dira (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 53.1.f artikulua). Udaleko arkitektoaren txostenak dioenez, tren geltokiaren eta aparkaleku publikoaren osagarri izango den kirol-erabilera ez da aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen, nahiz eta erakunde honek lursailaren hirigintzako araubide zehatza eskatu. Horrenbestez, baldintza bereziak eta sistema orokor horri egindako oharra zehazten dituen hirigintzako fitxatik ezin da ondorioztatu kirol-erabilera hori emateko aukera.

Nolanahi ere, aipatutako aire zabaleko kirol-erabilera osagarria onartuta ere (kontu hori ez da gure ustez egiaztatu aurkeztutako informazioan eta dokumentazioan), horrek honako hau eskatuko luke: trenbide zerbitzurako aurreikusita zegoen espazio horretan gauzatutakoa bezalako kirol-erabilera osagarriaren koherentzia behar den moduan justifikatzea.

Laburbilduz, administrazioak komunitatearen zerbitzuaren alde lan egiteko bokazioarekin jardun arren, legea errespetatu behar du ere hirigintza arloan egiten dituen jarduketetan, eta dagozkion hirigintzako prozeduren izapideak behar bezala egin behar ditu, bereziki udalerriko egituraren hirigintzako antolamendua ukitzen duen gai bati dagokionez. Hala zehazten du, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2011ko otsailaren 15ean emandako epaiak; haren laugarren oinarri juridikoak hau dio:

*“Además de ello es claro a juicio de la Sala que la modificación en relación con la unidad 108-3 afecta a la ordenación estructural, y ello porque las normas subsidiarias califican dicho ámbito como sistema general de equipamiento deportivo (uso global de equipamiento comunitario), y lo que la modificación hace es mutar dicha calificación global a sistema general de equipamiento de planta de compostaje (uso global de infraestructuras de servicios).*

*En la sistemática de la Ley de Suelo y Urbanismo la ordenación urbanística estructural incluye con carácter general la determinación de la red de sistemas generales (art.53.1.f) entre los que, en lo que aquí interesa, se diferencian los equipamientos colectivos públicos, entre los que están los deportivos ( art.54.1.b) de las infraestructuras para la prestación de toda clase de servicios. Claro resulta a la luz de dicha ordenación que la alteración de una clase de sistema general por otra, afecta a la ordenación estructural, puesto que no cabe aceptar que resulte indiferente desde la perspectiva de la definición de la estrategia de evolución urbana y ocupación del suelo que en el ámbito de la unidad 108-3 se instale un equipamiento deportivo que una planta de compostaje.”*

2. Arartekoak uste zuenez ezarritako erabilera ez zela eremu horretarako HAPON adierazi zena (izan ere, txosten teknikoak zioenez, ez zeuden aurreikusita tren geltokia eta aparkalekua egitea), informazioa zabaltzeko udalari helarazitako eskaeran aztertzen zen “skate” pistaren kirol erabilera honako hau izan zitekeela: *“ezarritako erabilera behin behineko lurzorutzat har daitekeen eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 36. eta 37. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen jakiteko. Besteak beste, gauzatutako proiektuak legez eska daitezkeen baldintzak betetzen dituen, bereziki hosgabetzeko eta isolatze akustikoa egiteko neurri zuzentzaileei dagokienez, jarduera garatzeko eta instalazioa erabiltzeko kalitate akustikoko mailak betetzen dituela ziurtatzeko.”*

Dena den, bidali zitzaion informazio osagarriaren eskaeran Arartekoak mahai gainean jarritako kontu horri ez zion erantzun udalak; hala, HAPOn hirigintzako arauak diotena errepikatu zuen, hau da, erabilera horrek ez duela planak ezarritakoa urratzen.

Behin-behineko erabilerak ezartzearen aurreikuspen hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 36. artikuluan oinarritzen da. Izan ere, artikulua horrek xedatzen du behin-behineko erabilerak salbuespen gisa baimen daitezkeela oraindik antolamendu xehatua onetsi ez den arlo edo sektoreetan eta legeriak edo lurralde edo hirigintza antolamenduak beren-beregi debekatzen ez baditu. Gainera, ezin dute plangintza hori gauzatzeko oztoporik jarri. Hala, besteak beste, aisialdi, kirol, jolas eta kultura mailako erabilerak baimentzen dira edozein eratako lurzoruan, haren sailkapena edozein izanda ere, eta azpiegitura nahiz zuzkidura publikoen sareen elementuen lagungarri izango dira.

Gainera, behin-behineko erabilerak ezartzeko aukera hori, hala badagokio, bateragarria da lehendik dauden eraikuntzetan edo instalazioetan sendotzeko obra partzialak eta unean unekoak gauzatzearekin, baldin eta hurrengo hamabost urteetan eraikuntza bat eraistea aurreikusten ez bada, egin nahiko ziren datatik zenbatzen hasita (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 101. artikulua).

Azken batean, Arartekoaren aburuz, lurzoru horrek zer egoera duen ikusirik eta planaren aurreikuspenak betetzeko itxaropen handirik ez dagoela tren geltoki eta aparkaleku gisa erabiltzeko, eraikuntza birgaitu salbuetsi batean "skate" pista egin ahalko zen soilik behin-behineko kirol erabilera emango balitzaio, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 36. artikuluekin bat etorriz. Behin-behineko erabilera horretarako, ondoren aipatuko den prozedura izapidetu behar da. Hori guztia, udaleko arkitektoak 2017ko uztailaren 4an egindako txostenean adierazitakoaren ondorioetarako. Honako hau dio:

*"La estructura del cobertizo es una estructura metálica existente y rehabilitada por lo que no hay que (sic) límite de distancias como nuevas edificaciones, aunque el Plan permite edificar este terreno como equipamiento debiendo en este caso cumplir una distancia mínima a linderos de 5 metros".*

Behin-behineko erabilera ezartzea baimentzen duen proiektu bat onartzeko prozeduraren tramitazioa dela eta, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak hauxe dio 207.4 artikuluan: **"Etxe, eraikin eta instalazioetarako ekintzak udaleku euren udalerrietan sustatutakoak direnean, baimena emateko edo onartzeko erabakiak hirigintzako lizentziarako bete beharreko baldintzak bete beharko ditu eta ondorioak ere haren berak izango dira, lege honen ondorioetarako..."**

Hortaz, erakunde honen aburuz, behin-behineko erabilera ezartzeak proiektua jendaurrean jartzea eskatzen du, gutxienez, hogeit hamar egunez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 37.1 c) artikuluan edozein behin-behineko erabilerarako lizentzia emateko kasuetarako aurreikusitako epea. Labur esanda, kasu honetan burutu beharreko izapidetzea ez da udal obren proiektu batena berez, baizik eta izapide zehatz batzuen eta berme handiago baten menpeko behin-behineko erabilera baten ezarpenarena. Aurreikuspen hori guztiz logikoa da, ezar daitekeelako, behin-behinean bada ere, udal plangintzan lurzoru horretarako ezarritako erabilera ez den beste erabilera bat.

“Skate” pistaren erabilera ezartzeko proiektua (behin-behineko erabilera, adierazitako eran) jendaurrean jarri ez izanak honako hau eragin du: jardueraren zaratak ukitutako etxebizitzetako bizilagunek gauzatu beharreko proiektua aztertu ezin ahal izatea eta dagozkien alegazioak aurkeztu ezin izatea; egoera horrek babesgabetasun handia sortu die.

3. Kexaren bigarren gaiari dagokionez, hau da, jarduera horrek ateratzen duen zaratak sortutako eragozpen larriari dagokionez, udalak 2017ko ekainaren 28an, 09:45ean, hamar bat hurrek eta begirale batek osatutako talde batekin egindako neurketa baten berri eman zuen.

Horri lotuta, udalari informazioa zabaltzeko egindako eskaeran, honako hau azaldu zuen Arartekoak:

*“Pistan jarduera zegoela egindako neurketak simulazio bat direla esaten da, eta egun batean bakarrik egin dutela neurketa, beraz, ez dela nahikoa luzea den aldi bat barne hartzen duen laginketa bat, eta beraz, ezin dela lortu zarata mailaren inguruko ezagutza orokorra.*

*Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da nahitaez egiaztatu behar dela instalazioak lege ezarritako zarata mailak betetzen dituela, bai emisio mugak, bai immisio mugak. Xede horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak utzitako mugako balioak ezartzen ditu. Horrela, 6.i). artikuluan udalaren eskumena dela ezartzen du: ‘Eraikin eta etxebizitzetan kalitate akustikoa betetzen dela egiaztatzea, eraikin horiek erabiltzeko lizentzia edo baimena eman aurretik aplikagarria den araudi autonomikoaren arabera.’*

*Zehazki, dekretuaren 1. eranskinak dauden eremu urbanizatueta aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak ezartzen ditu (B taula), 45/45/35 parametroak egunean, arratsaldean eta gauean hurrenez hurren, zarata-indize etengabe baliokiderako getetan, eta 40/40/30 logeletan.*

*Zure kasuan, “G Taula” ere kontuan hartu beharko da, jarduera berriek aldameneko lokaletan igorritako zaratamugari buruzkoa dena, “I. Taila”*



*kontuan hartuz, edo planteatutako gaiarekin berariaz lortutako beste edozein.*

*Horrenbestez, Arartekok uste dugu planteatutako kexaren aurrean udalak egiaztatu behar dituela kaltetutakoek, ezarritako jardueraren ondorioz jasan behar dituzten zarata-mailak egiaztatu behar dituela, erreferentziako erregulazioak ezartzen dituen neurketaproseduren bidez.”*

Aurrekarietan adierazi denez, 2019ko otsailaren 19an udalak “Zuazoko skate-pistak hurbileko etxebizitzetan sortutako zarata mailei buruzko ebaluazioa” izeneko txostena igorri zuen; enpresa espezializatu batek 2018ko abenduan egindako txostena da (aurrerantzean, txostena).

Egiten dituen proposamenekin eta ondorioekin ebaluazioaren edukia aztertu aurretik, lege esparrua aztertu behar da; izan ere, txostenak dio legeria betetzen dela baloratzeko interpretazioak eskatzen dituela Arartekoaren idazkian adierazitakoaz besteko planteamenduak.

Hala, txostenak zehazten duenez, 213/2012 Dekretuak aipatutako instalazio edo jardueraren kontzeptua ezin da kasu honetan aplikatu; beraz, skate-pistari ezin zaio igorpen edo inmisio-mugarik aplikatu, kalitate akustikoaren helburuak betetzea salbu, inguruan dauden zarata gune guztiak direla eta. Ondorio horietarako, txostenak dio jardueraren kontzeptua lizentzia, baimena, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena behar dutenei dagokiela, eta “skate” pista kontzeptu horren barnean ez dagoela, espazio publikoko haur-parkeak edo beste instalazio publiko batzuk bezala.

Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 2.1. artikulua, oinarritzkoa denak, honako hau zehazten du: *“Están sujetos a las prescripciones de esta ley todos los emisores acústicos, ya sean de titularidad pública o privada, así como las edificaciones en su calidad de receptores acústicos.”*

Bestalde, legearen 3. artikulua honela definitzen du **jarduera** bat: *“Cualquier instalación, establecimiento o actividad, públicos o privados, de naturaleza industrial, comercial, de servicios o de almacenamiento.”*

Azkenik, aipatu behar da legearen 12.2 artikulua kirol, jolas eta aisialdiko jarduerak sartzen dituela igorle akustikoen artean.

Beraz, gure ustez, zaratari buruzko sektoreko araudia “skate” pistarako aplikagarria da, eta txostenak egindako interpretazioa ezin da onartu, horrek esan nahiko zuelako igorle akustiko publikoak legez kanpo geratuko zirela hirigintzako lizentzia, jakinarazpen eta antzekoren beharrik ez izateagatik; aldez, partikularrek sustatutako igorle akustikoekin alderantziz gertatzen da. Gainera, lehen aipatu den moduan, udalak berak sustatutako kirol instalazioak, udaleko organo eskudunak hartutako erabakiaren bidez, izapidetzeko orduan baldintza



berberak bete behar ditu eta partikularrek eskatzen dituzten hirigintzako lizentziaren ondorio berberak sortzen ditu.

Ondorio horietarako, **“udaleko kirol-pistaren jarduera garatzeko”** Mallorcako Palma hiriko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegiak 2016ko maiatzaren 25ean emandako epaian honako hau zehazten da:

*“En segundo lugar , respecto de si la Administración demandada debe adoptar medidas correctoras para adecuar y ajustar la actividad de la pista polideportiva a la legislación que le sea de aplicación; acreditado, como lo ha sido, que la misma incumple durante su funcionamiento los niveles sonoros exigidos en el artículo 25.1 del RD 1367/2007, no cabe duda que se deben tomar por el Ayuntamiento más medidas de las ya ejecutadas hasta el momento para evitar o paliar significativamente los efectos adversos derivados del uso de la instalación deportiva. Los argumentos exculpatorios deducidos por el Consistorio referentes a la necesidad de realizar actividades escolares o que se trata de un supuesto de inmisión sonora socialmente admitida, no son compartidos por este Juzgador, pues ante un exceso de ruidos que no admite paliativos solo cabe que los poderes públicos, en estricto cumplimiento de la legalidad vigente, establezcan los correspondientes mecanismos efectivos de protección o reducción de los ruidos.”*

Horregatik, “skate” pista jarduera bat da, ezarpen berrikoa, eta ezin du igorri legez erabakitako parametroetan finkatutakoa baino zarata maila handiagoa.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak emandako epaiak (2011ko ekainaren 8koa), apelazioan emana, apelatutako epaiaren erabakia berretsi zuen; horren bidez, Bilboko Udalari agindu zitzaion saskien taulak ken zitzala kirolik praktika ez zedin, **saskibaloiko kantzak** ingurumena babesteko udal ordenantzak finkatutako entzumen-atalasearen azpitik erabiliko direla ziurtatuko duten neurriak hartzen diren artean.

Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak, Mallorcako Palma hiriko epaiak aipatzen duen zonifikazio akustikoari, kalitateko helburuei eta igorpen akustikoei dagokienez, 24. artikuluan zehazten duenez, instalazio, establezimendu edo jarduera berri orok (kirol, jolas eta aisialdikoak barne) beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu eremu akustikoen kanpoko ingurumenera zarata-maila handiak, III. eranskinaren B1 taulan muga-balio gisa ezartzen direnak baino gehiago, igor ez ditzan, IV. eranskinaren prozeduren arabera ebaluatu direnak.

Bestalde, erreferentziazko epaiak berriaz aipatutako Errege Dekretuaren 25. artikulua honako hau zehazten du:



*“1. En el caso de mediciones o de la aplicación de otros procedimientos de evaluación apropiados, se considerará que se respetan los valores límite de inmisión de ruido establecidos en los artículos 23 y 24, cuando los valores de los índices acústicos evaluados conforme a los procedimientos establecidos en el anexo IV, cumplan, para el periodo de un año, que:*

...

*b) Infraestructuras portuarias y actividades, del artículo 24.*

*i) Ningún valor promedio del año supera los valores fijados en la correspondiente tabla B1 o B2, del anexo III.*

*ii) Ningún valor diario supera en 3 dB los valores fijados en la correspondiente tabla B1 o B2, del anexo III.*

*iii) Ningún valor medido del índice  $L_{K_{eq}, T_i}$  supera en 5 dB los valores fijados en la correspondiente tabla B1 o B2, del anexo III.”*

Aldi berean, hizpide dugunaren antzeko jardueri aplikatutako zarataren inmisio-mugen balioak aipatzen dituen III. eranskinaren B1 taulak, zarata maila hauek finkatzen ditu (Lk egunerako, arratsalderako eta gauerako):

Lurraldeko sektoreak bizitegi-erabileraren lurzorua nagusi izanik.	55	55	45
--	----	----	----

Parametro horiek bat datoz jarduera berrietarako urriaren 16ko 213/2012 Errege Dekretuaren I. eranskinaren F taulan ezarritakoekin.

Lege esparru aplikagarri honetan, “skate” pistak sortutako zarata-mailen ebaluazio txostenak, udalak igorritakoa, ondorio eta gomendio hauek egiten ditu:

*“El estudio efectuado para evaluar los niveles generados por la actividad en la pista de skate de Zuazo, genera niveles promedio que no motivan la superación de los objetivos de calidad acústica, OCA, en el área.*

*Sin embargo, se identifica una situación que puede generar molestia por las características y niveles del ruido generado por el uso de la pista de skate que, además, se produce en una zona que podría ser calificada como zona tranquila urbana.*

*El tipo de ruido no continuo y con frecuentes impactos, hace que los resultados no se reflejen en el nivel promedio de larga duración, salvo en las tardes en las que hay una alta utilización de la pista. El tipo de ruido con frecuentes impactos, es lógico que genere una molestia adicional a los niveles medidos, más cuando los niveles máximos, LAFma, están en el*



*orden de 80 a 85 dB(A), que se deben percibir en el interior de las viviendas incluso con las ventanas cerradas.*

*El hecho de que, al menos durante las dos semanas contempladas en las medidas, el uso de la pista es frecuente y con una actividad significativa en las tardes, pero que también presenta un uso más ocasional a lo largo de la mayoría de los periodos diurnos, motiva que la situación se pueda tratar como una afección frecuente, lo que contribuye a aumentar la molestia en las viviendas con fachada hacia la pista.*

*Al no haber una referencia específica para valorar la molestia, se ha tratado de hacer una aproximación valorando los resultados con las exigencias del Decreto 213/2012 para nuevas actividades, aunque no sería aplicable a esta situación por no tratarse la pista de skate de una actividad. Esta valoración muestra que los niveles obtenidos superarían esas exigencias, por lo que se puede estimar que puede haber causas objetivas para establecer la situación como molesta para las viviendas.*

*Considerando que no es viable encontrar soluciones que reduzcan la emisión de ruido en la pista de skate, se recomienda que si el Ayuntamiento considerara la posibilidad de adoptar medidas de protección hacia las viviendas, se orientaran a estudiar la mejora que generaría el cierre lateral de la pista en el lado que da hacia las viviendas, con un material que aporte aislamiento suficiente a ruido aéreo.”*

Arartekoaren ondorioetarako, kexa eragin duen jarduera berria dela alde batera utzi gabe, egindako txostenetik ondorioztatu behar da lortutako zarata-mailak erreferentziarako araudiak jarduera berrietarako zehaztutako eskakizunak gainditzen dituela. Beraz, udalak beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu ezarritako jarduerak kanpoko ingurumenera zarata-maila handiak, III. eranskinaren B1 taulan muga-balio gisa ezartzen direnak baino gehiago, igor ez ditzan, 1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskinaren prozeduren arabera ebaluatu direnak.

Berriazko neurriak hartzeko eskakizuna aintzat hartuta eta inguru horretan kirol erabilera ezartzeari lotutako bigarren gogoetan adierazitakoari lotuta, udalak ezarritako erabileraren hirigintzako justifikazioa jasoko duen proiektua idatzi behar du, bai eta intsonorizazio eta isolamendu akustikoko neurri zuzentzaileak ere, instalazioak eskatutako kalitate akustikoaren mailak betetzen dituela bermatze aldera. Hala idatzitako proiektua interesdunei jakinarazi behar zaie eta, zehazki, instalazioaren alboko etxebizitzetako titularrei alegazioak aurkeztu ahal ditzaten, hori egitea egokia iruditzen bazaie.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

1. Dagozkien izapideen aurretik, interesdunei alegazioen izapidea egitea barne, ezarritako erabileraren hirigintzako justifikazioa jasoko duen proiektu bat onartzea, bai eta intsonorizazio nahiz isolamendu akustikoko neurri zuzentzaileak ere, "skate" pistaren erabilerak zaraten sektoreko araudiak jarduera berrietarako eskatutako kalitate akustikoaren mailak betetzen dituela bermatze aldera.
2. Hala badagokio, intsonorizazio nahiz isolamendu akustikoko neurri zuzentzaileak gauzatzea, "skate" pistaren erabilerak jarduera berrietarako kalitate akustikoko mailak betetzen dituela ziurtatzeko.

